

Euskal Herriak behar duen hezkuntzaren alde

Gure herrian azken hamarkadetan garatzen ari garen hezkuntza-bidean bildutako esperientziak bultzatu gaitu agiri hau zabaltzera. Hezkuntza irekia, parte hartzailea, euskalduna eta pluralista lantzen ari gara gure ikastetxeetan, helburu ideologiko alderdikoiak gainditu eta herriaren gehiengoak lortu nahi dituen xedeei begira. Hezkuntzan egiten ari garen bide hau, bizi ditugun gorabehera soziopolitikoaren erdian, ahalegin askoren emaitza da. Euskal Herrian hiru administrazio publikoetan hezkuntza politikaren ardura duten gobernu eta erakundeek –EAEn, Nafarroan zein Iparraldean– bide honetan herritarrek adierazi eta landutako oinarritzko adostasunen eta emandako urratsen aurka egitea larria litzateke. Larria, hain zuzen ere, euskal jendarteak behar duen hezkuntza oztopatu eta eskola helburu ideologiko jakin batzuen menpe ipiniko lukeelako.

Hezkuntzaren eremuan egingo dugun ibilbideari modu kezagarrian eragiten dioten erabakiak hartzen ari dira: besteak beste, euskararen presentzia eta ezagutzari buruzkoak, euskararen ofizialtasuna bera ukatzea, Euskal Herria ulertzeko modu murriztailea, testu liburuak zentsuratzeko nahia, irakasleen gabezia edota biktimen auzia bideratzeko bultzatu nahi dituzten politikak. Era horretan, modu larrian itxuraldatzen dituzte urte askotan gure hezkuntza komunitate zabalean landutako bide eta adostasunak.

Hasteko, prozedurak berak erakusten du erabaki horien mamia. Eragile ezberdinen parte hartzean sakondu eta adostasuna bilatzen saiatu gabe hartutako erabakiak dira. Hezkuntzako eragile gehienek iritzirik kontuan hartu gabe, inposizioaren bidetik datoz erabakiak.

Edukiei dagokienez, gure hezkuntzaren funtsezko helburu bati eragin nahi zaio: euskararen garapenari. Euskarak garatzen jarraitzeko dituen beharrei erantzuten saiatzen ari gara, euskararen berreskurapen oso eta normalizazioa xede izanik, hizkuntza desberdinei lekua eginez, bakoitzak duen behararen arabera, eta euskaratik abiatuta hizkuntza ofizial desberdinetan maila egokia ziurtatzea helburu hartuta. Bide hori desitxuratuz datoz une honetan administrazioen hainbat proposamen: besteak beste, euskararen presentzia lausotu nahi da beste hizkuntzen ikaskuntzaren aitzakia erabilita. Egoera diglosikoetan jarraitu beharreko irizpide psiko-pedagogiko eta soziolinguistikoek argi erakutsi digute azken urteotako bidean sakondu egin behar dela euskararen ezagutza eta erabilera bermatzen joateko, hortantxe baitugu Etxepareren “euskara jalgi hadi plazara” leloarekin bat egiten dugunok beharrik larriena. Bide horretan egindako edozein atzera pausu, beraz, benetan larria litzateke herri honek hamarkadetan egindako ahaleginean.

Bestalde, irizpide ideologiko jakin batzuk ezarri nahi dira. Horren adibide dira Euskal Herriaren kontzeptua bera arlo jakin batera baztertu nahi izatea, eta biktimen gaia modu murriztu eta alderdikoiaren erabiltzea. Ez da hori egokia hezkuntzaren ikuspegitik. Batetik, herritarren gehiengoak Euskal Herriarekiko duen pertzepzioa eta bizi dituen errealitateak hezkuntzatik ezabatzea kaltegarria da. Eta, bestetik, biktimei dagokienez hezkuntza komunitate osoa bil dezakeen ikuspegia garatu behar da irizpide pedagogikoetan oinarrituta. Eta hori giza-eskubide guztien errespetutik abiatuta, sufrimendu guztiekiko sentiberatasunez, eta elkarbizitzarako adiskidetzera helburu izanda soilik lor daiteke.

Hezkuntzan egindako bidea luzea da, ederra eta neketsua. Eta, zalantzarik gabe, etengabe hobetu beharrekoa. Egindako bidean sakondu, irekitasunari eutsi eta adostasunak etengabe bilatzeko ahaleginetik etorriko da hobetze hori. Gure babesa eta indarra eman nahi diegu lan hezitzaile honetan ari diren pertsona guztiei. Halaber, eragile sozial, sindikal, kultural eta herritar oro animatu nahi dugu hezkuntza alorrean gertatzen ari denaren inguruan hausnartzera, eta erantzun egokia ematera. Bide horretatik, dei egiten diogu jendarte osoari, ekainaren 26an Donostian egingo den manifestazioan parte hartzera Euskal Herriak behar duen hezkuntzaren alde.